

BAZTERRAK NAHASTEKATZEN

Mikel Carcedo Mitxelena

** OHARRA: idatzi hau bere garaian eman zitaion interesatuari, baina inongo erantzunik jaso ez dugunez harrez geroztik gure ikuspuntua publiko egitea erabaki dugu baldintza berdintasunean ager daitezen bakoitzaren ikuspegiak.*

Aurkezpen eginez hasi beharko dugu, noski. Idatzi hau plazaratzen duena ez da autoritate bat materian, amateur bat baizik. Halere, ordea, zerbait esatekorik baduela uste duena zenbait leku-izen eta bere moldaketa berrien gainean. Gure herrian (Euskal Herrian zein beste izendagaitz honetan) baditugu kasu mordoxka aitatzeko modukoak. Kontuok luzexko joko dutenez pazientziaz horni bedi irakurlea.

Pasaiaiko Donibane, gure denboran sorturiko izena, har dezakegu abiapuntu. Etxean zein San Joanen bizi izandako izeba Pilarren ahotik sekulan entzun gabekoa izaki, ezin muturra okertu gabe geratu hura sumaturikoan. Ez dakigu garbi zer dela-eta bihurtu nahi izan zituzten sanjoandarrak donibandar. Iparraldeko Donibane Lohitzune, Donibane Garazi, Donezaharre, Donapaleu,...ote ziren apika erreferentzia? Eta hala baziren txerta al daiteke besterik gabe Iparraldeko tradizioa Hegoaldean? Behin, hasiz gero, ez al zen egokia Donepetiri izena San Pedrorako? Eta Donejakuemendi Santiyomendirentzat?

“San Juan es tan pequeño que no se ve en el mapa (...) sanjuandarrak irabazi (...)” bezalako kantaren harira norainoko zainak ote ditu izen berriak? Eta legitimitatea? Politikoez onetsirikoa herritarrek berea egiten duteneino, seguraski; izen ofizialak sarri erabaki politikoak izaten baitira eta alda daitezkeenak.

Euskaltzaindiaren erabakia izan ohi da soilik hizkuntza-faktoreetan oinarritzen dena, baina Euskaltzaindiak konparazio batera Iruñea hobetsi eta erabaki arren Euskal Herriko hiriburu historikoaren euskal izen ofiziala Iruña da, gaur-gaurkoz.

Bestalde, gure aitona zena egunero-egunero joan ohi zen esneketari Donostiako Parte Zaharrera. Beste zenbait hiritan Alde Zaharra izango dute, noski, baina Donostian

egundaino Parte Zaharra izan da eta azken batean, uste oneko garbikeriak ez badu itxuraldatzen, gerora ere hala izango da.

Behin, erdaldun batzuk harritu samarturik egon omen ziren Oiarzungo kalean “San Esteban en Plaza” leituagatik hango plazan San Esteban inon ageri ez zelakoz. Egun, euskaltzale sutsu baten bigarren deitura erabiltzen du bidegabe hainbat jendek eta zenbait korresponentsalek plaza hitzaren ordainetan. Enparantza eta plaza ez dira gauza bera, ordea (ikus eta ikas hiztegietatik). Eta xanixtebanen partez ez al digu inork, baldinbetan, doneztebanik sortuko...

Gure Herriko Plazan bada plaka itxuroso bat *Herriko Enparantza* dioena. Jarrarazi zutenek hobeto beharrean egin zutelakoan nago, baina asmatu ote zuten? Ez ote zuten *Populuaren Plaza* adierazi nahirik bidean desterratu Herriko Plaza Herriko Enparantzaren mesedetan? Hala balitz, ez bateko eta ez besteko geratua da izen hori.

Baina familiaren kontuekin segituz esan dezagun Irunen ere izan badugula familia gurean. Hain zuzen ere, Katean. Irunen bai, eta Katean hain xuxen, hori baita bertako jendeak ahozko tradizioan iraunarazi duen izen jatorra eta Txirrita batek, adibidez, erabili izan zuen izen bakarra eta ez Landetxa, Bentak edota Ventas, nahiz hauek dirudien zabalduagoak egon egun.

Perlatxo hauek osatzen duten hizkuntzaren sena eta duintasunaren kontrako hanka sartze eta aldrebeskerien bilduma tamalez hagitz hedatua dago bazterretan. Halakoen aurrean pazientziarik handiena erakusten duen herriak lekurik balu Guinness-en euskaldunok sobera irabazia genuke lekua. Gure hizkuntzaren senak eta etorriak astindu etengabeak jasotzen ditu izenburu, txartel, erakunde-izen

eta abarretan. Urrutirago joan gabe igaro berriak diren hauteskundeak dira honen lekuko. Eta euskararen sena jipoi-tzeak kolore edo ideologiarik ez du. Ez, barkatu, ideologia bat badu: lehenik erdaraz pentsatu eta, ondotik, euskaraz edo jarri.

Bestalde, Irunen partez Urantzu, Astigarragaren ordez Murgia, Martuteneren ordainetan Sarroeta edota Oiartzun irrioaren lekuan Oeaso ibaia ontzat eman al daitezke iraganeko oihartzunei erreparaturik? Halako aldaketak egiten hasiz gero, zergatik ez egin askozaz ttikiagoak direnak eta h-ak ezarri, ustez, behar luketen lekuetan, adibidez Oihartzunen?

Gure herrira bueltatuz, Gabiri-errota Gabierrota baino ego-kiagoa al da? Eta Senperelarre Xenpelar baino?, Gazta-ñedo, Gaztaño baino?, Arrano-mendi, Arramendi baino?, ... Zein hauta ondo-rengoetatik? Bastida/Paxtire, Larratxipi/Larrapitxi, Belabaratz/Belatz,... Bizarainek bete behar ote du Samarkoren lekua? Kale izenei bagagozkio ere balegoke zer esana. Egungo plakek ageri dutena eta Euskaltzaindiak hobetsirikoa ez baitatoz bat zenbait kasutan: Miguel de Aldunzin, Lope de Isasti, Viteri, Juan de Olazabal,... Migel Alduntzin, Lope Isasti, Biteri, Juan Olazabal eta abar behar bailukete euskaraz ongi idaztez gerotan.

Honenbestez, gure herriko toponimia-azterketa eta -bilketa burutzea guziz desiragarria litzateke; baina hori bai, gaian jantziriko eta irizpide argitasunez hornituriko espezialistek burutu beharko lukete lan hori ongi egitez gerotan.

Azkenik, plater fuerteena. Xitalkeria hastera goaz. Luis izena damaio Elberdin jaunak bere buruari, ez horregatik Koldobika, Koldo edota Luix. Nonbait, bere izana aldatu zuen (neurri batean euskaldunduz, alegia), baina bere izena ukitzeko premiarik ez zuen sumatu. Bere horretan utzia du, beti ezagutu izan duen bezalaxe. Dagoen horretan kontzea ez zaio gaizki iruditzen. Guri ere ez, jakina.

Euskaltzaindiak 1979an Euskal Herriko Udalen Izendegia argitaratu zuenean, Koldo Mitxelena Elissalt Batzorde Buru izanik, berak paratu zion hitzaurrea. Hitzaurre horretan honelatsu mintzo zen Goiko Kaleko maisua. Erretereria izan da betidanik, zenbait erregela gorabehera (Errenderia), gure herriaz gain Bizkaiko bi auzoren euskal izena (bata Gernikakoa, Aita Villasanteren sorlekuarena, hain zuzen ere), eta Alfonso Xlgarrenak Oiartzunen kaltetan Villanueva de Oiarso izenez sortu nahi izan zuen hiriaren jaio-lekuarena Orereta. La Rentería erdal izenari euskal herritar xehe-ek emaniko euskal egokipen jatorra baizik ez da Erretereria

(gaskoierazko El Pasage-tik Pasaia sortu zen bezalaxe). Euskal hitz jatorra, garbikeria gailendurik ez badugu behin behin aranatarren moduan. Ehundaka urtetako bizia izan duena (zirkulu ofizialetatik kanpo, hizkuntza bera bere osotasunean bizi izan den bezalaxe) eta erabat geurengatua duguna. Desterrurik desio ez dioguna.

Erretereria herri-izena ez da ez erregek ez inork inposatua, euskaldunek berek berentzat egina baizik. Orain dela gutxi aski arte Rentería soilik izan da gure herriaren izen ofizial bakarra. Izena euskaraz ofizialtzeko aukera izan zuten tenorean ez baitziren alderdi abertzaleak erreflexuz oso bizi ibili. Egun, Erretereria deritza ofizialki, borondate politikoa dela medio. Erretereria aldezteza ez al da errespetagarria? Herri mogimenduko partaide izateko Oreretazalea izan behar al da ezinbestez?



Foto: I. Arizmendi

Euskaltzaindiaren osoko batzarrean, Bilbon, 1995eko urriaren 27an, aho batez onarturiko testua ("**ERRETERIA ETA ORERETA IZENEZ**") hagitz argigarria suerta dakioko oraindano informazio iturria beste nonbaitetik iragazia izan duenari. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak biltzen dituen EUSKERA argitalpeneko 40. liburukian (1995, 2-3) topa dezake interesa duenak.

Auzi sobera politizatu eta neurri gabe mikaztu hau muturreraino (eta muturrekin) eramatekoa ote da? Agian izanaren alde hurbiltzen saia gintezke guziok ere, izenaren kontura elkar begitan hartu gabe.